Lankako, Indonesiako, Thailandiako, Maldivetako eta Somaliako biztanleengan izan zuen eraginik handiena. Neurri txikiagoan, herrialde hauek ere kaltetu ziren: Bangladesh, Malaysia, Myanmar, Kenia, Tanzania...



Hondamendiaren eskala pobreziaren Ondorioz hazten ari da

Katastrofeak naturalak dira, baina hondamenak ez, eta ez lirateke ikusi behar katastrofearen ondorio saihestezin gisa. Katastrofeek hainbat modutan eragiten diete pertsonei, eta oso inpaktu desberdina izan dezakete eragindako gizartearen edo herrialdearen arabera.

Katastrofe bat hondamen bihurtzeko, pertsona zaurgarriei eragin behar die. Pertsonek beren zaurgarritasun-maila murritz badezakete, katastrofeek ez dute ezinbestean hondamena sortu beharrik. Hala ere, herrialde batzuk beste batzuk baino zaurgarriago izatea eragiten duten faktoreak nekez aztertzen dira, eta zaurgarritasunaren zergatiak gutxitan konpontzen dira.

- Katastrofea: une jakin batean leku jakin bati eragin diezaiokeen muturreko egoera (naturala edo gizakiak eragindakoa), intentsitate-maila handiagoa edo txikiagoa duena, eta krisi baten eragile gisa aritzen dena. Katastrofeak naturalak izan daitezke, esaterako, lurrikarak, uholdeak, lehorteak, etab., baita gizakiak sortuak ere, besteak beste, gatazka armatuak edo intoxikazioak.
- Hondamena: gizartearen funtzionamendua larriki aztoratzen duen gertaera, eta eragindako gizarteak erabilgarri dituen baliabideak erabiliz horri aurre egiteko duen gaitasuna baino harantzago doazen galera materialak, ingurumenekoak edo heriotza ugari eragiten dituena. Hondamenaren ondorioak hainbat fenomenotan ager daitezke: gosetea, epidemiak, biztanleriaren exodoa, etab.
- Zaurgarritasuna: gerta daitekeen katastrofe baten aurrean familia edo pertsona batek bizia, ondasunak edo mantenusistema (bizibidea) galtzeko duen arrisku-maila da. Katastrofe natural edo giza katastrofe batek hondamena ekar dezakeen jakiteko determinatzaile nagusia talde baten zaurgarritasunmaila da.

Zaurgarritasuna funtsezko bi faktorek zehazten dute:

- katastrofeen eragin fisikoak (arriskua),

- baliabideak eskuratzeko aukera mugatuak: sarreren eta erreserben pobrezia, mantenu-sistemaren segurtasun-falta eta defentsa edo babes pertsonalaren falta.

Zaurgarritasuna aztertuz gero, errealitatea ikuspegi estrukturalarekin azter daiteke, eta ez egoeraren araberako ikuspegi hutsarekin; horrez gain, krisiaren zergati sakonei erantzuteko aukera ematen du.

Asiako hego-ekialdearen kasuan, lurrikarek eragindako katastrofeen eragin fisikoa (arriskua) oso handia da. Eskualde hori mugimendu sismikoen arrisku-eremuan dago, eta hala ere, ez du lurrikaren kasurako alerta-sistemarik. Japonia eta AEBak ere arrisku-eremuetan kokatuta daude, baina lurrikarak detektatzeko sistema sofistikatuak dituzte.

Hain zuzen, hondamena gertatu eta handik aste gutxira, aurreikusita zegoen bezala, **Katastrofeak Murrizteari buruzko Munduko Goi-bilera** egin zen Koben (Japonia), eta erreferente nagusia Indiako Ozeanoan gertatutako katastrofea izan zen. Goi-bilera horretan, eragindako eremuan ahalik eta azkarren lurrikaren alerta-sistema jartzea proposatu zen.

"Abenduaren 26ko tsunamiaren katastrofearen ondoren, Indiako Ozeanoan alerta-sistema ezartzea egin daitekeen gutxiena da; horrez gain, hondamendien prebentzioa nazioarteko agendan lehen tokian jarri behar da".

JORDI CARDONA

Intermón Oxfam-eko ordezkaria urtarrilaren 18 eta 22 bitartean Koben (Japonia) egin zen Katastrofeak Murrizteari buruzko Munduko Goi-bileran.

Azken hamarkadan, jatorri naturaleko hondamenek 211 milioi pertsonei eragin die urtero. Hilen % 98 inguru Hegoaldeko herrialdeetan egon dira.

Eragindako herrialdeetako eremurik behartsuenak eraso zituen itsasikarak. Aceh-n (Indonesia), eremu kaltetuenean, ospitale bakarra zegoen; biztanleen % 40ak ia ez zuen osasun-zerbitzuak jasotzeko aukerarik; % 49ak ez zuen edateko urik, eta azpiegiturak nekez mantentzen ziren. Hori itsasikara gertatu aurreko egoera zen.

Asiako hegoaldeko estandarren arabera bereziki behartsuak ez ziren eremuetan ere, itsasikarak dagoeneko erabateko pobrezian bizi ziren pertsona ugariri eragin dio. Tamil Nadu-n, Indiako estaturik behartsuena ez izan arren, biztanleriaren % 21ak baino gehiagok ez zuen edateko urik hondamena gertatu aurretik.

"Gaizki eraikitako etxeetan bizitzeak eta osasun-laguntza edo komunikazio egokiak ez izateak, katastrofe batean, bizia edo bizibideak galtzearen eta ez galtzearen arteko diferentzia zehazten dute. Horregatik, pobrezia murrizteko, beharrezkoa da gobernuek milurtekoko garapen-helburuak ahalik eta azkarren betetzea".

JORDI CARDONA, Intermón Oxfam-eko ordezkaria urtarrilaren 18 eta 22 bitartean Koben (Japonia) egin zen Katastrofeak Murrizteari buruzko Munduko Goi-bileran.

Ekintza humanitarioa: Zaurgarritasunaren ikuspegia

Herrialde bateko garapen-maila eta pobrezia-maila funtsezkoak dira katastrofe bati lehenengo 48 orduetan ematen zaion erantzun humanitarioa koordinatzeko.

Lehenengo 48 edo 72 orduetan, funtsezko zeregina ebaluazioazterketa egitea da, katastrofearen irismena eta premiazko beharrak zein diren zehazteko. Halaber, beharrezkoa da jakitea beste zein erakunde humanitario ari diren lanean eragindako eremuan, horrela, koordinazio eraginkorra egon dadin. Lana hainbat erakunderen artean banatzeko irizpideak erakunde bakoitzaren espezialitatearen eta erabilgarri dauden baliabideen araberakoak dira.

Erantzun humanitarioan, hiru esku-hartze maila bereizten dira: Larrialdiko laguntza: ondasunak eta zerbitzuak doan hornitzeko 'sorospen-laguntza' da. Laguntza hori krisia gertatu eta lehenengo

egunetan aktibatzen da, eta 6 edo 12 hilabetez luza daiteke. Laguntza humanitarioa: larrialdiko laguntzaz gain, errefuxiatu eta desplazatuei laguntzeko ekintzak sartzen dira hemen, baita zaurgarritasuna murrizteko prestakuntza- eta prebentzio-programak eta errehabilitazio- eta berreraikitze-programak ere. Ekintza humanitarioa: ikuspegi globalagoan oinarritzen da, eta zaurgarritasunean jardutera bideratuta dago; bizitzeko eta segurtasunerako eskubidearen barruko eskubideak kontuan hartzen ditu. Ikuspegi zabalago horretatik, larrialdiko laguntza emateaz gain, zaurgarritasuna (pobrezia) sortzen duten kausa estrukturalak errotik kentzera zuzendutako ekintzak aktibatzen dira. Horrela, laguntza humanitarioaz gain, eskubideak babestera zuzendutako ekintzak, testigantza- eta salaketa-ekintzak, eragin politikoko ekintzak eta komunikazio-ekintzak egiten dira.

Nazioarteko komunitatearen erantzura: Alla dia eta berreraikitzea

Tsunamiak eragindako eremuan zeuden GKE nagusiak berehala hasi ziren lanean, eta janaria, edateko ura, aterpea eta premiazko objektuak eman zizkieten katastrofeak eragindako ehun milaka pertsonei.

Herritarren erantzuna ere berehalako izan zen. GKEen bitarteko dohaintzak ugaritzen joan dira.

Gobernu emaileek 5.000 milioi dolar baino gehiago emateko promesa egin dute, eta kopuru horren bidez larrialdiko fasea eta berreraikuntza fasea gauzatuko lirateke. Promesa horiek, ordea, oraindik zehazteke daude. Nazio Batuek 977 milioi dolar eskatu dituzte lehen faserako –ekaina arte iraungo luke–; katastrofetik hilabetera, horietatik 450 bakarrik ordaindu zituzten gobernuek. Oraingoz, promesek, eskatutako 977 milioi dolarretatik, 923 estaltzen dituzte.

Gobernuek agindutako dohaintzak ordaintzeko izandako atzerapenaz eta agindutakoa ez betetzeaz gain, gobernuek aurreko krisietan izandako portaerak beste arrisku bat iradokitzen du. Indiako Ozeanoko itsasikarak emandako erantzunean erakutsitako eskuzabaltasun izugarriak munduan dauden beste 14 krisi humanitario handirentzako behar diren funtsak arriskuan jar ditzake. Horien artean, Sudaneko, Ugandako iparraldeko edo Kongoko Errepublika Demokratikoko gatazkak daude.

Horietan, hiru milioi eta erdi pertsona baino gehiago hil dira 1998tik dagoen gatazka armatuaren ondorio zuzen edo zeharkako ondorio gisa.

Hori bezain garrantzitsua da itsasikara gertatu eta gero emandako laguntza benetan 'berria' izatea, hau da, **laguntza hori aurreko konpromiso batzuetatik 'birziklatua' ez izatea**, ezta bestelakoan munduko beste leku batzuetarako laguntza humanitariora edo garapen-laguntzara bideratuko liratekeen aurrekontu-partidetatik eratorritakoa izatea ere.

Bam-en (Iran), komunikabideen arreta bertan behera geratu ostean, planifikatutako etxebizitza berrien % 5 bakarrik eraiki da. Ali-Mohamad Rafizadeh gobernadorearen hitzetan, 2005eko urtarrilaren 11n, bere herriak, agindutako 120 milioi dolarretatik 55 milioi besterik ez ditu jaso. Promesa hori nazioarteko arreta hondamenean kontzentratuta zegoenean egin zen.

Babesa beharra duenari ematea

Laguntza humanitario oro ebaluazio inpartzialetan oinarrituta banatu behar da, gizatasun eta neutraltasunaren printzipio humanitarioen arabera.

- NBek eta gobernu emaileek arreta berezia jarri behar lukete gutxiengoen taldeen, biztanle indigenen, oposizio-taldeetako kideen eta kasta baxuetako pertsonen beharretan, eta inolako diskriminaziorik gabe behar duten laguntza jasoko dutela ziurtatu behar da. Beste batzuk (haurrak, egoera zaurgarrian dauden emakumeak eta langile immigranteak) ere, sarritan laguntza jasotzeko zailtasunak dituztenak, ez dira baztertu behar.
- Ez dugu ahaztu behar bizirik gelditu diren pertsona batzuek laguntza fisikoa baino gehiago behar dutela. **Desplazatuek** beren etxe eta bizibideak berreraikitzeko itzuli nahiko dute, batzuk agian etorkizun oso hurbilean. Errefuxiatuen nazioarteko zuzenbidearen arabera, pertsonen mugimendu guztiek borondatezkoak izan behar dute, eta segurtasun eta duintasunez egin behar dira.

- Beste krisi batzuetan, desplazatuen zaurgarritasunak eta dislokazio ekonomikoak adingabekoen esplotazioa, emakume eta haurren trafiko ilegala eta sexu-merkataritza areagotzea eragin dute (bestelako alternatiba ekonomikorik ez dutenen kasuan). NBek arazo horiei eta GIB/IHESaren eta sexu bidez kutsatzen diren beste gaixotasun batzuen hedapenari nola egingo dioten aurre azaldu behar lukete.
- Itsasikara gertatu arren, oso zaila da oraindik Aceh-n eta Sri Lankan bake iraunkorra lortzea. Bai gobernuek, bai gatazkako beste aldeek beharra dutenei eta zibil guztiei babesa emateko betebeharra eta behar izan dezaketen laguntza humanitarioa haiengana iristen uzteko betebeharra dute. Laguntza banatzeko, irisgarritasuna ez da ziurtatu behar eskolta armatuen erabileran oinarrituta; aldiz, beharrezkoa den lekuan berehala suetena lortzeko asmoan oinarritu behar da.

"Plus berreraikuntza"

Berreraikuntzak itsasikara gertatu aurretik zegoen egoera birsortzeko helburura baino harantzago joan behar du. Horren helburuak 'plus berreraikuntza' izan behar du, zehazki, pobrezia behin betiko murriztera, ingurumenaren iraunkortasuna bermatzera eta etorkizunean gerta litezkeen hondamenen aurrean zaurgarritasuna murriztera zuzenduta dagoen berreraikuntza.

- Printzipio hori praktikan jartzeko, ez da egon behar larrialdirako erantzuna amaitu zain. Eragindako pertsonei aterpeen eraikuntzan eta beste lan humanitario batzuetan lana emateak pertsona horien bizimodua berreraikitzen lagun dezake. Horrelako programek dirua ematen duten lanaren truke. Kalitatezko lan humanitarioak eta 'plus berreraikuntzaren' hasierak elkarrekin joan behar lukete. Agindu hori ez da jasotzen NBek egindako Premiazko Deialdian. Deialdi horren bidez aurrekontuaren % 1,4 bakarrik bideratzen da nekazaritza eta arrantzako sektoreak berreraikitzera.
- Arrantzaleen, nekazari txikien, eskulangileen eta beste produkzio-sektore batzuen bizibideak suntsitu ditu itsasikarak.
 Berreraikitze-planek eragindako sektore guztiak berreskuratzen lagundu behar lukete, eta laguntza humanitarioarekin gertatzen den bezala, diskriminazio oro saihestu behar lukete.
- Kostaldean eragindako eremu gehienak arrantza-komunitate txikien eta kokaleku indigenen etxe ziren, eta haien lurren jabetzaren legezko tituluak ez zeuden oso argi. Talde horiei beren bizitzak orain arte bizi izan diren lurretan berreraikitzen utzi behar litzaieke.
- Bereziki Sri Lanka eta Maldivetan, behartsu gehienak turismotik bizi dira. Bai gobernuek bai tokiko negozioek eta operadore turistikoek elkarrekin lan egin behar lukete, sektore turistikoa ahalik eta azkarren berreskuratuko dela ziurtatzeko.

Berreraikitzeko zorra arintzea

Itsasikarak eragindako herrialde batzuei zorra arinduz gero, berreraikitzeko mila milioi dolar liberatuko lirateke. Horrek lehentasunetako bat izan behar luke, betiere, prozesu horretan liberatutako funts guztiak 'plus berreraikuntzara' eta pobrezia murriztera bakarrik bideratzen badira.

Urtarrilaren 12an egindako Pariseko Klubaren bileran, hartzaileek zorra itzultzeko ordainketak izozteko eskaintza egin zieten itsasikarak kaltetutako herrialdeei. Pariseko Klubak, ordea, ez zuen lortu ordainketen behin-behineko etenaldia baino harantzago joatea. Klubeko kideek itsasikararen ondoren herrialde zordunek duten zorraren maila iraunkorra zehazteko ebaluazioa berehala egiteko eskatu behar lukete. Ebaluazio horrek independentea eta gardena izan behar luke.

Ebaluazio horren emaitzek maila iraunkorraren gainetik dagoen zorraren zati bat barkatzea lortu behar lukete, betiere, funts liberatuak 'plus berreraikuntzara' eta pobrezia murriztera bideratzen badira. Horrez gain, erabakiak eta prozesuak gardenak izan behar dute hartzaileentzat eta eragindako herrialdeetako biztanleentzat. Barkatze hori hartzaileen eta eragindako herrialde bakoitzaren artean negoziatu behar litzateke. Hartzaileek ez lukete azpimarratu behar baldintzak ezartzeko beharra (normalean gertatu ohi den bezala), horren helburua herrialde horien liberalizazio ekonomikoan aurrerapen handiagoa lortzea bada, adibidez, arrozaren produkzio nazionalen neurri babesleak kentzea.

Oztopo komertzialak kentzea

Berreraikitzeko ahalegina erraztuko lukeen beste alderdi bat da Europako Batasunak eta AEBek eragindako herrialdeetako esportazioak haien merkatuetan sartzeko aukera hobetzea, bereziki, jantziena eta kirol-oinetakoena, herrialde horien

ekonomiarako ezinbestekoak baitira. Esportazioak areagotzeak hamar milaka lanpostu sortzen, sarrerak handitzen eta eragindako herrialdeek funtsezko inportazioetarako eta berreraikitzeko erronkarako behar dituzten dibisak sortzen lagunduko luke.

Tokiko erantzuna

• Krueng Raya Banda Aceh-ren (Indonesia) mendebaldean dagoen herria da, handik 45 bat minutura. Herri arrantzale horretan jendea bere eskuekin ari da etorkizuna eraikitzen. Tsunamia gertatu eta bost egunera, etxeak berreraikitzen hasi ziren. Abenduaren 26ko hondamenak sortutako txatarraren eta suntsiketaren artean erremintak, egurra, plastikoa eta beste material batzuen bila aritu dira, hurrengo hilabeteetan (agian urteetan) biziko diren lekuak eraikitzeko.

"Ez genuen nahi kanpin-dendetan bizi eta laguntza iritsi arte eserita zain egon", dio arrantzale-herri horretako alkateak. Bere lurrak laga ditu jendea han hartzeko. "Lan egiten eta duintasunez bizitzen ohituta gaude, eta hemen lan asko egiten ari gara", adierazi du.

Krueg Raya itsasotik hurbil dago, eta tsunamia iritsi zenean jende gehienak eremu altuetara ihes egin eta bizia salbatzea lortu zuen. Orain, 3.500 pertsona eremu horietan kokatu dira, eta etxeak eraikitzen ari dira beren bizitzekin aurrera jarraitu ahal izateko. Batzuk negozio txiki batzuei ekitea lortu dute, esaterako fruta saltzea.

• Colachel inguruko kostako bizilagunak – Kanyakumari-ko barrutia, India – hainbat modutan jasan dituzte tsunamiaren olatu ahaltsuen eraginak. Batzuek pertsona maiteak galdu dituzte, eta beste batzuek beren etxeak galdu dituzte. Horietako askok beren bizibideak galdu dituzte: vallam-ak (arrantzaleen ohiko txalupak, lau enborrekin eginak), kanoak, katamaranak eta txalupa motordunak.

"Eremu honetan, 350 txalupa motordun genituen, baina orain ezin ditugu erabili", dio Chinnamutton herriko Stanley-k, olatuek itsasbazterrean gora eramandako txalupak seinalatuz. Kostaldeko herri guztietan, arrantzale-taldeak kukubilko ikusten ditugu, zigarroa errez eta berriketan arituz, itsasora noiz eta nola joan ahal izango duten galdetuz beren buruari.

Indiako Hegoaldeko Arrantzale Elkarteen Federazioak (SIFFS), Nazioarteko Oxfamen laguntzarekin, laguntza-programa bati ekin dio eragindakoen bizibideak berrezartzeko. Planak, eragindako herrixka batzuetako arrantzaleen 1.600 vallam eta 4.500 katamaran konpontzea aurreikusten du. Herrixka horien artean kaltetuenak daude: Muttom eta Chinnamuttom.

Aukera honetaz baliatzea pobreziaren aurka borrokatzeko

Abenduaren 26tik bizi izan den nazioarteko elkartasun-fluxu izugarria desagertzeko arriskua dago itsasikara albisteetatik desagertu bezain laster. Une hau aprobetxatuz, gobernuek aukera paregabea dute 2005ean **Milurtekoko Garapen Helburuak** lortzeko plan eraginkorrak ezartzeko.

Itsasikara gertatu aurretik, jada gobernuentzako erronka zen, 2005eko irailean New Yorken goi-bilera egingo baita. Katastrofe honek aurrekaririk ez duen erantzuna lortu du, eta horrek erakusten du borondate kontua besterik ez dela pobrezia eta munduan egunero 30.000 pertsona hiltzen dituzten gaixotasunak nabarmen murriztea eragozten diena gobernuei. 2005ean, erronka hori betetzeko:

- Herrialde garatuetako gobernuek gutxienez 50.000 milioi dolar eman beharko lituzkete garapena bultzatzeko. Kopuru hori lehendik dauden laguntza-aurrekontuei gehitu beharko litzaieke. Era berean, egutegi bat formalki finkatu eta ELGEri bidali behar liokete. Egutegi horretan, Garapenerako Laguntza Ofizialak 2010ean BPGaren % 0,7 izatea lortzeko prozesua zehaztuko litzateke ¹. Aurten egingo den Segurtasun Kontseiluaren osaerari buruzko eztabaida dela eta, herrialde garatuek organo horretan eserleku iraunkorra edo erdiiraunkorra ezingo luketela izan adostu beharko litzateke, egutegi hori formalki ezartzen duten arte.
- Hartzaileek bermatu behar dute itsasikarak eragindako herrialdeen zorra arintzeari buruzko akordioa ez litzatekeela egin beharko zorra duten beste herrialde behartsu batzuen

- aldeko neurrien kaltetan. Eguneko 100 milioi dolar baino gehiagoko zorraren zerbitzuak eragozpen handia dira munduko pobrezia murrizteko. G7 taldeko ekonomia-ministroak otsailaren hasieran bilduko dira, eta aurrerapen-maila txikiena duten herrialdeen zorra % 100ean barkatzea adostu behar lukete, eta horrela, Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko urrats bat egingo lukete. Beste herrialde zordun batzuen kasuan, itzultzeko epeak berriro negoziatu beharko lirateke.
- Gobernuak 2006ko Doha-ko Merkataritza Txanda amaitzeko prestatu beharko lukete, 2005eko abenduan Hong Kongen egingo den ministroen bilerako emaitzetan oinarrituta. Prozesu horrek nazioarteko merkataritzarako arau berriak ezarri behar lituzke, (a) herrialde aberatsek ordezkatzen dituzten esportazioak eragindako dumpinga desagerraraziko dutenak, (b) garapen-bidean dauden herrialdeek beren merkatuak zein erritmo eta eskalatan irekiko dituzten erabakitzeko gaitasuna izatea bermatuko dutenak eta (c) herrialde aberatsek herrialde behartsuetatik datozen produktuen aurrean duten diskriminazioa amaituko dutenak.
- Gobernuek krisi humanitarioetan harrapatuta dauden zibilak babesten saiatu behar dute, eta datorren irailean egingo den NBen goi-bileran munduko edozein lekutako zibilak 'babesteko erantzukizuna' onartu behar lukete; Arma Salerosketari buruzko Nazioarteko Ituna ezartzeko presioa egin behar lukete; eta NBen Deialdi Humanitario guztiak finantzatu behar lituzkete.

Dossier hau egiteko, dokumentu hauek hartu dira oinarritzat:

- Aprender las Lecciones del Tsunami Un mes después.

 Nazioarteko Oxfam-en kanpo-aldizkaria (2005/01/25).

 http://www.intermonoxfam.org/cms/HTML/espanol/1379/dc010205_tsunami_un_mes_después%20.pdf
- Maremoto en el Sudeste Asiático: Tres semanas después.
 Informazio-oharra. Intermón Oxfam (2005/01/14).
 http://www.intermonoxfam.org/cms/HTML/espanol/377/ni180105_Maremoto2_esp.pdf
- Maremoto en el Sudeste Asiático: Retos tras la Conferencia de Yakarta.

 Informazio-oharra. Intermón Oxfam (2005/01/10).

 http://www.intermonoxfam.org/cms/HTML/espanol/377/ni100105_Maremoto_esp.pdf

¹ Orain arte bost herrialdek bakarrik bete dute konpromiso hori: Holandak, Suediak, Norvegiak, Danimarkak eta Luxenburgok. Erresuma Batuak 2006an % 0,4ra iristeko konpromisoa hartu du, baina gaur egun % 0,27 bakarrik ematen du. AEBek % 0,1 bakarrik ematen dute, eta Espainiak % 0,3. Tarteko helburu gisa, Espainiako gobernuak 2008rako % 0,5era iristeko konpromisoa hartu du.

Gehiago jakiteko...

Liburuak

La realidad de la ayuda 2003-2004

Intermón Oxfamen txostena

La acción humanitaria en la cooperación española (2003ko azaroa)

IOren dokumentua, pdf formatuan.

http://www.intermonoxfam.org/cms/HTML/espanol/868/Accion_%20humanitaria_cooperacion_espaoola.pdf

Web orriak:

Nazioarteko erakundeak:

http://www.un.org/spanish/

Ingelesez:

http://www.reliefweb.int http://ochaonline.un.org/

GGKE:

http://www.intermonoxfam.org

http://www.cruzroja.es/

http://www.msf.es

Besteak:

http://www.ub.es/solidaritat/observatori/esp/dossiers/tsunami/tsunami.htm



BBC Mundo.com: El desastre en Asia

http://news.bbc.co.uk/hi/spanish/specials/2004/maremoto/default.stm

El Mundo.es: Asia bajo el Tsunami

http://www.el-mundo.es/fotografia/2004/12/maremotos especial/

La Vanguardia.es: Monográfico maremoto universal

http://www.lavanguardia.es/public/web/51172971666.html

Global Express-ek galderak eragin eta sortu nahi ditu gure eskoletako ikasleen artean, komunikabideetan esaten dutenaz. Errealitatearen ikuspegi kritikoa sustatu nahi dugu, ikasleek munduaren egoera, bereziki, garapen bidean dagoen munduaren egoera ulertzeko aukera izan dezaten.

Global Express ondoko talde hauen ekimena da: Centrum voor Mondiaal Onderwijs (Holanda), Curriculum Development Unit (Irlanda), Centro Educazione Mondialità (Italia) eta Intermón Oxfam (Espainia). Global Express-ek AECI-ren diru laguntza jaso du





Proposamen didaktiko hau bigarren hezkuntzako ikasleentzat da. Gizarteko, etikako, tutoretzako eta beste zenbait gaitako eskoletarako aproposak dira ariketak, baita gaia interesatzen zaien irakasleentzat ere. Proposamenaren helburua da hondamendi baten ondorioen eta pobreziaren arteko erlazioa aztertzea eta hondamendi bati aurre egiteko aktibatzen diren laguntza-motei buruz hausnartzea.

1. ariketa:

Zer dakigu?

Helburua: Asiako hegoaldean 2004ko abenduaren 26an zer gertatu zen jakitea.

Orientabideak: esan ikasleei ideia-jasa prestatzeko, hondamendiari buruzko informazioa denen artean osatzeko. Galdera hauek kontuan izan: zerk eragin du hondamendia? (kausak); non gertatu da? (kokalekua); nori eta nola eragin die? (ondorioak). Ideia-jasa amaitu ondoren, gertaerarekin lotutako albisteak bila ditzakezue, aipatutako galderei buruzko horma-irudi bat prestatzeko.

Kalteberatasun kontzeptuaren inguruan zabal daiteke ariketa. Kontzeptu horretan erabakigarriak dira katastrofeekiko esposizio fisikoa eta baliabideak eskuratzeko ahalmen mugatua –diru-sarrera eskasak, segurtasun-gabezia edo babes falta pertsonala–. Galdera hauek egin ditzakezu: Zergatik gertatzen dira hondamendien % 98 Hegoaldean? Zergatik ez dute lurrikarez ohartarazteko sistemarik Hegoaldeko herrialdeek, arriskua duten beste leku batzuek bezala? Estatu Batuek eta Japoniak bezala, adibidez.

2. ariketa:

Herrialde baten bila...

Helburua: Buruan ditugun irudietan eta hondamendia ulertzeko moduan komunikabideek duten eraginaz konturatzea. Hegoaldeko herrialdeei buruz dugun eta eratzen dugun irudia nolakoa den aztertzea. Kaltetutako inguruneari buruz ditugun kontzeptuak lantzea.

Orientabideak: ariketaren helburua da ikasleei pentsaraztea komunikabideek zenbateko eragina duten besteaz eta Hegoaldeaz dugun irudian eta horiek ulertzeko moduan. Egin 4-5 pertsonako taldeak, fitxan aipatzen diren galderei erantzun diezaieten. Ekarpenak bateratu ondoren, esan ikasleei alegiazko lau herrialde horiei buruzko albiste guztiak herrialde bakarrari dagozkiola: Tailandiari. Tailandia, hain justu, tsunamiak kalte gehien egin duen herrialdetako bat da. Gezur txikia azaldu ondoren, galdetu gelako taldeari ea engainatuta sentitu den jardueraren planteamenduagatik, eta piztu eztabaida galdera hauek eginez: Nola da posible komunikabideek hain albiste desberdinak ematea herrialde berari buruz? Beste adibiderik bururatzen zaizue?... Galdera horiek kontuan hartuta, ikasleek informazioa parteka dezatela.

3. ariketa:

Tsunamia 4 unetan

Helburua: Tsunamiak epe ertainean eta luzean izango dituen ondorioak identifikatzea.

Orientabideak: Argazkietan hondamendiaren ondorio batzuk ikusten dira. Ideiak bateratzean interesgarria litzateke osasungintza, azpiegiturak eta abar aipatzea, eta epe motzeko beharrak (edateko ura...) epe ertain

edo luzekoetatik bereiztea ("plus berreraikuntza"). Hirugarren galderaren helburua da ikasleei hausnarraraztea gisa horretako hondamendiek epe luzean dituzten ondorioei buruz.

4. ariketa:

Irtenbideak bilatuz

Helburua: Irtenbideak imajinatzea eta arduradunak nor diren esatea. Orientabideak: aurreko ariketan ateratako konklusioak abiapuntutzat hartuta, ondorioen zerrenda egin dezakezue eta zutabea denen artean bete. Gainerako zutabeak taldeka bete behar dira. Ariketa honetan garrantzitsua da nabarmentzea ekintza humanitarioetan epe motzeko (larrialdiko laguntza) zein epe luzeko irtenbideak (berreraikitzea eta pobreziaren aurka borrokatzea) landu behar direla eta ekintza horien arduradunak (estatuetako gobernuak, nazioarteko komunitatea...) identifikatu behar direla.

5. ariketa:

Nazioarteko erantzuna prentsan

Helburua: Nazioarteko komunitatearen erantzuna baloratzea (gizarte zibila, GKEak, gobernuak eta nazioarteko erakundeak).

Orientabideak: Fitxak 4-5 pertsonako taldetan lantzea eta gainerako taldeekin adostea komeni da. Eztabaidan, interesgarria izango litzateke herritarren/gizarte zibilaren eginkizun aitzindaria azpimarratzea.

6. ariketa:

Argiak eta itzalak...

Helburua: Ezbeharrari aurre egiteko martxan jarri diren laguntzamotei buruz hausnartzea.

Orientabideak: Fitxak 4-5 pertsonako taldetan lantzea eta gainerako taldeekin adostea komeni da. Eztabaidan, interesgarria izango litzateke herritarren/gizarte zibilaren eginkizun aitzindaria azpimarratzea.

7. ariketa:

Eta guk zer egin dezakegu?

Helburua: Tsunamiak kaltetutako herrialdeei laguntzeko abian jar ditzakegun ekintzak pentsatzea.

Orientabideak: Esan ikasleei ideia-jasa prestatzeko, laguntza emateko edo herritarrak sentsibilizatzeko kanpaina bat presta dezaten. Hasi aurretik, gogorarazi kaltetutako jendeari zuzenean laguntzeko edo gure inguruko herritarrak sentsibilizatzeko eta klase politikoari erantzukizunak eskatzeko gizartea mobilizatzeko izan daitezkeela ekintzak. Ariketa taldean ere egin daiteke: talde bakoitzak proposamen bat prestatu, eta gainerako ikasleei aurkez diezaieke.



Tsunamia: larrialdiaren ondoren elkartasuna

Bildu komunikabideetan tsunamiari buruz azaldu den informazioa eta sailkatu hauen arabera. Gero, egin informazio hau erakutsiko duen horma-irudi bat.

Zerk eragin du hondamendia? (Kausak)	Non gertatu da? (Kokalekua)	Nori eta nola eragin die? (Ondorioak)



2. Herrialde baten bila...



[2]. Irakurri arretaz alegiazko lau herrialderi buruzko albisteak –Centala, Mentarbe, Ferrarte eta Garen Federazioa- eta erantzun galderei.

CENTALA

- Amnesty International erakundeak argitaratutako txosten batek agintariak kritikatzen zituen jende pobreenaren eskubideak ez babesteagatik (nekazariak, etorkinak eta indigenak).
- Droga ekoizten duen munduko herrialde nagusietako bat da.
- Milioi-erdi adin txikikok baino gehiagok prostituzioan lan egiten dute, kalkuluen arabera.
- Heriotza-zigorra indarrean dago.

MENTARBE

- Jendea oso atsegina eta abegitsua da.
- Orografia askotarikoa da: iparraldean, mendi malkartsuak eta baila sakonak daude; hegoaldean, berriz, hondartzak eta oihan tropikalak.
- Turistentzako eskaintza zabala dago, zaletasun eta sakela guztien neurriko aukerak ematen baititu.
- Hegaldien eta pakete turistikoen eskaintza oso onak aurki daitezke herrialde hau bisitatzeko.

FERRARTE

- 60 milioi biztanle baino gehiago ditu (ia-ia Espainiak halako bi).
- Munduko Merkataritza Erakundeak (WTO) goraipatu egin du merkataritza liberalizatzeko, makroekonomia egonkor bihurtzeko eta egitura-aldaketak egiteko Ferrartek emandako aurrerapausoak. Erakunde horren arabera, Ferrarteko ekonomia gehiago irekitzen bada, hazkundea bultzatuko du.
- Inguru horretako herrialde garatuenetako bat da.

GAREN FEDERAZIOA

- Espainia baino handixeagoa da.
- Giza garapenaren indizean, 76. postuan dago (Espainia, aldiz, 20.ean).
- Helduen alfabetatze-indizea % 92koa da (Espainiakoa, berriz, % 97,7koa).

Galderak:

- 1. Zein herrialdetara joango zinateke oporretan?
- 2. Non jarriko zenuke fabrika bat?
- 3. Zein herrialde da pobreena?
- 4. Non daude bizi-baldintza onenak?

Iturria: X. Obach-en lanetik egokitua (1998), Praxis argitaletxea.

3. Tsunamia

4 unetan

Begiratu argazkiei eta erantzun galderei:











Jarri iz	zenburua argazkie	: i				
	itu pertsona horie rrotan)	k zer egoeratan	egongo diren	urtebete barru	(deskribatu (egoera bako
		k zer egoeratan	egongo diren	urtebete barru	(deskribatu (egoera bako
		k zer egoeratan	egongo diren	urtebete barru	(deskribatu (egoera bako
		k zer egoeratan	egongo diren	urtebete barru	(deskribatu d	egoera bako
		k zer egoeratan	egongo diren	urtebete barru	(deskribatu d	egoera bako
		k zer egoeratan	egongo diren	urtebete barru	(deskribatu d	egoera bako
		k zer egoeratan	egongo diren	urtebete barru	(deskribatu d	egoera bako
		k zer egoeratan	egongo diren	urtebete barru	(deskribatu d	egoera bako
		k zer egoeratan	egongo diren	urtebete barru	(deskribatu d	egoera bako
		k zer egoeratan	egongo diren	urtebete barru	(deskribatu d	egoera bako
		k zer egoeratan	egongo diren	urtebete barru	(deskribatu d	egoera bako
		k zer egoeratan	egongo diren	urtebete barru	(deskribatu d	egoera bako
		k zer egoeratan	egongo diren	urtebete barru	(deskribatu d	egoera bako
		k zer egoeratan	egongo diren	urtebete barru	(deskribatu d	egoera bako

4. Irtenbide ____ bila...



6. Begiratu argazkiei eta erantzun galderei:

Ondorioa	Epe motzeko irtenbidea	Arduradunak	Epe luzeko irtenbidea	Arduradunak

5. Nazioarteko erantzuna prentsan



Irakurri arretaz albiste hauek eta erantzun galderei:

Tsunamiak eragindako hondamendiari erantzun dio NBEk

"2004ko abenduaren 26an gertatutakoa aurrekaririk ez duen mundu mailako hondamendia da. Hortaz, aurrekaririk ez duen mundu mailako erantzuna eskatzen du."

Kofi Annan Nazio Batuen idazkari nagusia

Jakartako deklarazioa, Indonesia, 2005eko urtarrilaren 6a

Herrialde industrializatuen G7 taldeak esan zuen itsasikarak kaltetutako herrialdeen kanpo-zorra izoztu egingo duela.

Hala ere, neurri horrek ez du bertan behera utziko kanpo-zor osoa, gobernuz kanpoko hainbat erakundek eskatu bezala.

nttp://news.bbc.co.uk. 2005/01/07.

"Lehen aldiz, hondamendia gertatu eta bi astean US\$717 milioi bildu dira kaltetuei berehala laguntzeko erabili ahal izateko".

Jan Egeland, NBEko Laguntza Humanitarioaren koordinatzailea

Oxfam Internacional erakundeak 27 tonako larrialdiko laguntza humanitarioa bidali du hegazkinez Sri Lankara.

http://www.intermonoxfam.org. 2004/12/28

Mexikok baino 14 aldiz diru gehiago eman du Spielberg-ek.

http://www.cronica.com.mx_2005/01/05

Garagardo-botilak ura banatzeko

Lion Brewery enpresak Sri Lankan duen garagardo-fabrikako ekoizpena geldiarazi du, botilak urez bete eta Oxfam erakundeak –Intermón Oxfam, Espainian– kaltetutako lekuetan bana ditzan.

http://www.intermonoxfam.org

Č٦.	Esan zer eragilek eman dioten laguntza tsunamiak kaltetutako jendeari (gizarte zibila, GKEak, gobernuak eta nazioarteko erakundeak).
҈8.	Informazio horren arabera, zer motatako laguntza jarri du martxan nazioarteko komunitateak?

6. Argiak eta itzalak



Ser kontraesan daude goiko eta beheko informazioen artean?

O Adierazi laguntza banatzeko izan diren 4 arazo eta 4 irtenbide posible.

Koordinazio faltak zaildu egiten du Asian laguntza banatzea

Zenbait kaxa ez dira kaltetuengana iristen, garraiobiderik ez dagoelako – NBEk nazioarteko komunitateari eskatu dio ez dadila atzeratu dohaintzak ordaintzean.

"Asian laguntza humanitarioa ematea behar-beharrezkoa da Tsunamiak kaltetutakoen kopurua handitu ez dadin. Baina laguntza atzeratzen ari da, **gobernuen, armaden eta nazioarteko boluntarioen artean** koordinazioa falta baita, zenbait GKEk salatu duten legez"

"Oraingoz, oso gutxi egin dugu". Horixe aitortu du Jan Egeland Nazio Batuen Larrialdiko Laguntzaren koordinatzaileak.

www.elmundo.es, 2004/12/30

Intermón Oxfam erakundeak Gobernuari eskatu dio tsunamiak kaltetutako herrialdeei emango dien laguntza loturarik gabeko dohaintzak izan daitezela, eta ez kredituak

José María Vera: "Espainiako Gobernuak zergatik ematen du laguntzaren % 90 kreditutan, gainerako herrialdeek dohaintzak eman eta zorra barkatzen badute?"

www.intermonoxfam.org , 2004/12/31

"Ez zait axola komisioagatik dirua kobratu izana, baina amorrua ematen dit horrelako hondamendi batetik irabaziak lortzea" esan zuen Madrilgo 56 urteko enpresaburu batek. Ez du nor den esan nahi, baina bai 200 euroko dohaintza transferitzeagatik Santander taldeak 3,29 euroko komisioa kobratu ziola.

Asiaren hegoaldea: "Gardenak izatea eta publikoki esatea erabaki dugu"

MSF erakundeak nahikoa diru jaso du Asiaren hegoaldean larrialdiko eskuhartzea finantzatzeko, eta Larrialdien Fondorako dohaintzak egitea eskatzen du.

"Gizarteak erantzun solidarioa eta izugarria eman digunez, operazio masiboa martxan jarri ahal izan dugu, eskuartean ditugun baliabideekin" esan zuen Rafael Vilasanjuán Mugarik Gabeko Medikuak (MGM) erakundeko zuzendari nagusiak

http://www.msf.es, 2005/01/07

EL PAÍS, 2004/12/31

"Gizarteak izugarrizko erantzuna eman du. Jendeak uste du zerbait egin behar duela, zernahi dela ere: Iritzi publikoa dela eta, gobernuek ere presio handia dute jarduteko" esan zuen Rafael Vilasanjuán Mugarik Gabeko Medikuak (MGM) erakundeko zuzendari nagusiak.